

## **4. EKONOMIA JARDUEREN GAINKO ZERGAREN IKUSKARITZAREN ZERGA ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza hau ikuskaritzako araudia Tokiko Ogasunen errealitatera egokitzeko eta Balmasedako udalak Ekonomia Jardueren gaineko Zerga udal kuotako erregimenean ordaintzen duten jardueretarako bere gain hartu duen eskumena araupetzeko ezarri da.

### **2. artikulua. Araudi aplikagarria.**

Tokiko Ogasunen ekainaren 30eko 5/1989 Lege Arautzailearen 7 eta 8. artikuluetan eta horren garapenerako idatzitako gainerako xedapenetan aurreikusten den araudia, eta Ordenantza hau.

### **3. artikulua. Zergen ikuskaritza.**

Zergen ikuskaritza Udal Administrazioaren organoa da, zergetara behartutako ezberdinen zerga egoera aztertzeko eginkizunaren ardura eman zaiona, bakoitzak Tokiko Ogasunarekiko dituen obligazio eta betebeharrak zehatz-mehatz betetzen dituen egiaztatzeko, eta behar denean dagokion eguneratzeari ekiteko.

Ikuskaritzaren eskumena da ondoko prozeduren eginbideak eta, behar denean, likidazioa ere burutzea:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan erroldako egoera eta horri dagozkion likidazioak eguneratu edo legezkatzea.
- Zergetetara behartutakoek zergaren kudeaketan egindako arau hausteen ondoriozko zerga zehapenak jartzea.

### **4. artikulua. Ikuskaritzaren nondik norakoa.**

Egingo den ikuskaritzak preskribitu ez duten zerga epe guztiak hartuko ditu, hartzen dituzteneko subjektu pasibo zein zerga epeengatik beste Herri Administrazio batzuetako Zerga Administrazio organoek jada abiarazitako jarduera ikuskatzaileak ezik.

### **5. artikulua. Langile Ikuskatzaileak.**

Udal Ikuskaritzara atxikitako langileak ondoko lanpostuetakoren bat izango du:

- a. Ikuskatzaile Nagusia. Ikuskatzaile Nagusia Alkatea izango da, honako eskumenak kontuan hartuz:
  - Ikuskaritza plana onestea.
  - Ikuskaritzako Saileko buruak proposatuta, zergazko zehapenak jartzea.
  - Zergetako Foru Arau Orokorraren 112 eta 113. artikuluetan araupetzen diren banakako informazioen agindeiak sinatzea.
  - Ikuskaritzako Arautegi Orokorrek Ikuskatzaile Nagusiarentzat gordetzen dituen eginkizunak betetzea, zeinetan aipagarrienak Ikuskaritzako Saileko buruak sinatutako adostasun aktak fiskalizatzea eta erroldaren

eguneratzea ikuskatzeko prozedurak ekartzen dituen berariazko zerga likidazioak diktatzea baitira.

- b. Ikuskaritzako Saileko Burua. Eskumenak eginbideetara eta frogak lortzera mugatzen dira, bai ikuskatzeko prozeduran bai zehapenekoan.

Erroldaren eguneratzea Ikuskatzeko prozedura. Ikuskaritzako laguntzaileek egindako jarduerak egiaztatzea, eta frogatzeko lanak egitea, behar denean zergen ikuskaritzen aktak sinatuz.

Zehapen Prozedura. Ikuskaritzako Saileko buruak zehazpen prozedura abiaraziko du zergazko arau hauste simple edo larria eragin lezakeen nahitako elementu beharrezkoaren zantzurik dagoela uste baldin bada.

Araua hausten duen subjektuarengan nahitako elementu beharrezkoa agerian uzteko behar diren frogak bilduko ditu, eta aurkezten diren alegazioak ikusi ondoren, ebazpeneko proposamena egin eta Alkateari helaraziko dio.

- c. Ikuskaritzako laguntzaileak. Langile hauek prestakuntza hutseko eginkizunen ardura edukiko dute, edo zerga mailan oihartzuna duten egitate eta inguruabarrak egiaztatu edo frogatzearen ardura.

Ikuskaritzako Langileak nor eta zer diren egiaztatzen duen txartela edukiko dute, ikuskaritzako udal bulegoetatik kanpoko beren jardueretan aldean eraman eta erakutsi beharko dutena. Nortasun eta zertasan txartel horren eredia Alkatetza-Udalburutzak beren beregi onesten duena izango da.

## **6. artikulua. Ikuskaritza Plana.**

Oro har, ikuskaritzako eginkizunen ariketa Alkateak onetsitako Ikuskaritza Planari egokituko zaio. Plana nolabait isilpekoa izango da, eta ez da jendaurrera aterako. Planaren barruan, langileek eraginkortasun eta bidezkotasun irizpideen arabera jokatu dute.

Hala ere, ikuskatzeko jarduerak goragoko agindu idatzi eta arrazoituaren bidez hasi ahal izango dira, edo salaketa publikoaren ondorioz.

## **7. artikulua. Ikuskaritzako aktetan eguneratzeko zenbatekoa.**

Ikuskaritzak ekonomia jarduera jakin baten erroldako egoera eguneratzeko abiarazten dituen aktetan agertzen den likidazioaren proposamenak oker kalkulatu leudekeen likidazio eta jaulkitako ordain-agiri guztiak konpentsatuko ditu, horien autonomia mantenduz, ikuskaritzak proposatutakoaz bestelako epigrafeengatik likidatuta egon arren.

## **8. artikulua. Berandutzako korrituak.**

Erroldaren egoera eguneratzen duten likidazioen proposamenek aktan eguneratu behar den zenbatekoaren berandutzako korrituak ere hartuko dituzte, arestiko artikulua arabera, aktak eguneratutako epe desberdinei dagozkien sorrera datetatik hasi eta likidazioa egintzat hartzen den egunera arte, akta adostasuneko legez izapidetzen bada, eta alegazioen epea amaitu arte, desadostasunez izapidetzen bada.

## **9. artikulua. Arau haustekak.**

Zerga arau-hauste larritzat jotzen da, bidezko kitapena egin ahal izateko, Zerga Administrazioak eskatzen dituen aitorenak edo agiriak ez aurkeztea, epez kanpo aurkeztea edo osatu gabe edo txarto aurkeztea.

#### **10. artikulua. Zehapen prozedura.**

Arau hauste sinple zein larriengatik izapidetzen diren zehapenak, ikuskatutako zergetara behartutakoaren egoera eguneratu edo legeztatzeko izapidetzen den espedientetik banatutako beste espediente batean bideratuko dira.

Prozedura jakinarazpenarekin abiaraziko da, non araua hautsi duen ustezko jokabidea agerraraziko baita, eta alegazioak aurkezteko 15 eguneko epea emango baita.

Ikuskaritzako Saileko Buruak interesatuek alegatutako egitateak egiazkotzat ez dituenean, egitateak frogatzeko gehienez 30 eta gutxienez 10 eguneko epea irekitzea erabakiko du, frogak ikuskatzeko jardueren bidez ere bilatu ahal izan izateko.

Frogaldi hori gauzatzen denean, interesatuei ere horren berri emango zaie, emaitzak ikusi ondoren 15 eguneko epean alegazio berriak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Ikuskaritzako Saileko buruak zehapeneko prozeduraren eginbideak amaitutzat jotzen dituenean, artxibatzea aginduko du, edo bestela ebazpeneko proposamen arrazoitua helaraziko dio Alkate eta Ikuskatzaile Nagusiari, jarduera guztiekin batera, bidezkoa dena erabaki dezan.

#### **Azken xedapena. Indarrean sartzea**

Zerga Ordenantza hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan, eta 2002ko urtarrilaren 1ean hasiko da aplikatzen, indarrean egongo delarik berriaz indarririk ez duela argitaratu arte.